

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onestea hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga

7/2022 Legeak, apirilaren 8koak, ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, ordenamendu fiskalean sartzeko hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Ekonomia Ituna aldatzea erabaki du, besteak beste, hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga hori adosteko.

Erabaki horren ondorioz, apirilaren 3ko 9/2023 Legearen bidez Ekonomia Ituna aldatu da.

Ekonomia Itunaren 34 quater artikulua arabera, hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga itundutako tributu da, eta Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak arautuko dute.

Hala ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zergaren karga tasak igo ahalko dituzte, lurralde erkidean une bakoitzean indarrean dauden mugen barruan eta indarreko baldintzak betez.

Aurrekoa dela eta, zerga premiazko araugintzako dekretu hau eman beharra dago, zerga berri hori Arabako Lurralde Historikoaren tributu ordenamenduan txertatzeko, Ekonomia Zirkularerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ezarritako epe ondorio berberekin.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Ondorioz, bigarren diputatu nagusiordearen eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, gaur egindako bilkuran, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak foru aldundiari ematen dizkieten eskumenak erabiliz, premiazko arrazoiak direla medio, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Izaera eta helburua

1. Hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga zeharkako tributu bat da, hondakinak zabortegietara, errausketa edo baterako errausketa instalazioetara entregatzearen gainekoa, deuseztatze edo balorizazio energetikoa egiteko.

2. Zergaren helburua da prebentzioa sustatzea, hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea, frakzio organikoa lehentasunezko frakzio gisa hartuta, eta ingurumen hezkuntza sustatzea, hondakinak zabortegian uzteko, errausteko eta batera errausteko pizgarriak kentze aldera.

2. artikulua. Aplikatu beharreko arautegia

1. Ekonomia Itunaren 34 quater artikuluan xedatutakoaren ildotik, zerga premiazko araugintzako dekretu honetan eta hura garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat etorritu eskatuko da.

2. Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan ezarritakoak ez dio kalterik egingo barne ordenamenduan sartzeko diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatutakoari, Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua arabera.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena, inskripzioa eta errolda

1. Zerga ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga horren xede diren hondakinak entregatzeko zabortegia edo errausketa edo baterako errausketa instalazioa Arabako Lurralde Historikoan dagoenean.

2. Zerga horren pean dauden zergapekoen inskripzioa eta errolda Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga horren xede diren hondakinak entregatzeko zabortegiak, errausketa edo baterako errausketa instalazioak Arabako Lurralde Historikoan daudenean.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak

1. Zerga horren ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) «Hondakinen baterako errausketa instalazioa»: urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Industriako isurketen Erregelamenduak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak, 2. artikulua 15. zenbakian ezarritakoaren arabera definitutakoa.

b) «Hondakinen errausketa instalazioa»: urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Industriako isurketen Erregelamenduak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak, 2. artikulua 18. zenbakian ezarritakoaren arabera definitutakoa.

c) «Udal hondakinen errausketa instalazioa, D10 eragiketa gisa kodetua»: udal hondakinak eta udal hondakinen errefusak errausteko instalazioa, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean ezarritako atalaseak gainditzen dituena.

d) «Udal hondakinen errausketa instalazioa, R01 eragiketa gisa kodetua»: udal hondakinak eta udal hondakinen errefusak errausteko instalazioa, ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean ezarritako atalaseak gainditzen dituena.

e) «Bulego kudeatzailea»: Arabako Foru Aldundiaren egitura organikoari buruzko arauen arabera, hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen organoa.

f) «Udal hondakinen errefusak»: Zabortegietan utzitako hondakinak nola ezabatu arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren 1. apartatuaren d), e) eta g) letretan aipatutako udal hondakinen tratamenduetatik eratorritako hondakinak. Errefusatzat jotzen dira berreskuratutako erregai solidoak eta udal hondakinetatik eratorritako erregaiak.

g) «Hondakinak»: ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikulua a) letran definitutakoak, lege horren 3. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezarritako salbuespenekin.

h) «Hondakin geldoak»: Zabortegietan utzitako hondakinak nola ezabatu arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 2. artikulua a) letran definitutako hondakinak.

i) «Udal hondakinak»: ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2. artikulua av) letran definitutako hondakinak.

j) «Zabortegia»: hondakinak lurrazalean edo lurpean utzita ezabatzeko instalazioa. Barne hartzen dira ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen III. eranskinean D01, D05 eta D12 gisa kodetutako eragiketarako egiteko baimendutako instalazioak.

k) «Zergaren aplikazio lurraldea»: Espainiako lurraldea.

2. Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan agertzen diren eta berezko substantibotasuna duten kontzeptuei eta terminoei dagokienez, arau honetan definitutakoak izan ezik, zergaren eremu objektiboan sartzen diren produktuei buruzko Europar Batasuneko eta estatuko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

5. artikulua. Zerga egitatea

1. Hauxe da zerga egitatea:

a) Zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dauden zabortegi baimenduetan hondakinak entregatzea, haiek ezabatzeko, zabortegi horiek titulartasun publiko zein pribatukoak izan.

b) Zergaren aplikazio lurraldean kokatutako errausketa instalazio baimenduetan hondakinak entregatzea, haiek ezabatzeko edo haien balorizazio energetikoa egiteko, instalazio horiek titulartasun publiko zein pribatukoak izan.

c) Zergaren aplikazio lurraldean kokatutako baterako errausketa instalazio baimenduetan hondakinak entregatzea, haiek ezabatzeko edo haien balorizazio energetikoa egiteko, instalazio horiek titulartasun publiko zein pribatukoak izan.

6. artikulua. Salbuespenak

Zergatik salbuetsita daude:

a) Hondakinak zabortegietan, errausketa instalazioetan edo hondakinen baterako errausketa instalazioetan entregatzea, entrega hori agintari publikoek aginduta egiten denean ezinbesteko kasuetan, premia larriko egoeretan edo hondamendietan, edo suntsitu beharreko ondasun konfiskatuak direnean.

b) Hondakinak zabortegietan, errausketa instalazioetan edo hondakinen baterako errausketa instalazioetan entregatzea, hondakin horiek zerga honengatik tributatu duten eragiketa zergapuetatik datozen.

c) Hondakinak zabortegietan, errausketa instalazioetan edo hondakinen baterako errausketa instalazioetan entregatzea, hondakinak instalazio horietan ezabatzea legeak ezarritako bete-beharra denean.

d) Administrazioek lurzoruen deskontaminaziotik datozen hondakinak zabortegietan entregatzea, horiek ezin izan direnean in situ tratatu Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako irizpide eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak 7. artikulua 3. apartatuan adierazitakoaren arabera, baldin eta administrazioak subsidiarioki lurzoru kutsatuak deskontaminatzeko jarduketetan aritzen badira, zuzenean edo zeharka, eta jarduketa horiek legez interes orokorreko jarduketa deklaratu badira.

e) Zabortegietan hondakin geldoak entregatzea, bertan zaharberritze, egokitzapen edo betetze lanak egiteko egokiak direnean eta eraikuntzara bideratuta daudenean.

f) Hondakinak zabortegietan, errausketa instalazioetan edo hondakinen baterako errausketa instalazioetan entregatzea, hondakin horiek udal hondakinen errefusekin zerikusirik ez duten tratamendu eragiketen ondorio direnean eta tarteko tratamendu eragiketak ez diren balorizazio eragiketak egiten dituzten instalazioetatik datozen.

7. artikulua. Sortzapena

Hondakinak zabortegietan uzten direnean edo hondakinen errausketa edo baterako errausketa instalazioetan errausten edo batera errausten direnean gertatuko da zergaren sortzapena.

8. artikulua. Subjektu pasiboak: zergadunak eta zergadunaren ordezkioak

1. Zergaren zergadun izango dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35. artikulua 3. apartatuan aipatzen diren erakundeak, zerga egitatea gauzatzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezeko subjektu pasibo izango dira pertsona fisiko edo juridikoak eta Arabako Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauaren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen diren erakundeak, baldin eta zabortegeiak edo errausketa edo baterako errausketa instalazioak kudeatzen badituzte eta zerga egitatea gauzatzen ez badute.

9. artikulua. Zerga oinarria

1. Zabortegeietan utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinen pisua, tona metrikotan eta hiru dezimalekin adierazia, izango da zerga oinarria.

2. Zerga honen zerga egitatea osatzen duten jarduerak egiten diren instalazioetako bakoi-terako zehaztuko da aurreko apartatua definitutako zerga oinarria.

3. Administrazioak ezin badu zerga oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztu, zeharkako zenbatespenaren bidez egin ahal izango du, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Zerga oinarria zeharkako zenbatespenaren bidez zehazteko, utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinen pisua kalkulatzeko erabil daitekeen edozein datu, inguruabar edo aurrekari hartu ahal izango du kontuan administrazioak, eta, bereziki, hondakinen bolumenaren jasotze topografikoa eta utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinen karakterizazioa, baita dentsitatearen eta osaeraren zehaztapena ere.

10. artikulua. Kuota osoa

Kuota osoa zerga oinarriari dagokion zerga tasa aplikatuz kalkulatu da:

a) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegeietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Udal hondakinak badira: 40 euro tona metrikoko.

2. Udal hondakinen errefusak badira: 30 euro tona metrikoko.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitakoak ez beste hondakin batzuk badira, zeinak aurretiazko tratamendutik salbuetsita geratu baitira Zabortegeietan utzitako hondakinak nola ezabatu arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua 2. apartatua ezarritako baldintzetan:

1) Oro har: 15 euro tona metrikoko.

2) Hondakin geldoen osagaia ehuneko 75etik gorakoa duten hondakinak badira: hondakin geldoaren zatia, 3 euro tonako, eta gainerakoa, 15 euro tonako.

4. Bestelako hondakinak badira:

1) Oro har: 20 euro tona metrikoko.

2) Hondakin geldoen osagaia ehuneko 75etik gorakoa duten hondakinak badira: hondakin geldoaren zatia, 1,5 euro tonako, eta gainerakoa, 20 euro tonako.

b) Hondakin arriskutsuen zabortegeietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Aurretiazko tratamendutik salbuetsita geratu diren hondakinak badira, Zabortegeietan utzitako hondakinak nola ezabatu arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua 2. apartatua ezarritako baldintzetan: 8 euro tona metrikoko.

2. Bestelako hondakinak badira: 5 euro tona metrikoko.

c) Hondakin geldoen zabortegeietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Aurretiazko tratamendutik salbuetsita geratu diren hondakinak badira, Zabortegeietan utzitako hondakinak nola ezabatu arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua 2. apartatua ezarritako baldintzetan: 3 euro tona metrikoko.

2. Bestelako hondakinak badira: 1,5 euro tona metrikoko.

d) Udal hondakinen errausketa instalazioen kasuan, D10 eragiketa gisa kodetutako ezabatze eragiketak egiten badira:

1. Udal hondakinak badira: 20 euro tona metrikoko.
2. Udal hondakinen errefusak badira: 15 euro tona metrikoko.
3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitakoak ez bezalako hondakinak badira: 7 euro tona metrikoko.

e) Udal hondakinen errausketa instalazioen kasuan, R01 eragiketa gisa kodetutako balorizazio eragiketak egiten badira:

1. Udal hondakinak badira: 15 euro tona metrikoko.
2. Udal hondakinen errefusak badira: 10 euro tona metrikoko.
3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitakoak ez bezalako hondakinak badira: 4 euro tona metrikoko.

f) Hondakinen errausketarako beste instalazio batzuen kasuan:

1. Udal hondakinak badira: 20 euro tona metrikoko.
2. Udal hondakinen errefusak badira: 15 euro tona metrikoko.
3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitakoak ez beste hondakin batzuk badira, eta horiei ez bazaie egin ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan R02, R03, R04, R05, R06, R07, R08, R09, R12, D08, D09, D13 eta D14 gisa kodetutako tratamendu eragiketarik: 5 euro tona metrikoko.

4. Bestelako hondakinak badira: 3 euro tona metrikoko.

g) Hondakinen baterako errausketarako instalazioetan batera erraustutako hondakinen kasuan: 0 euro tona metrikoko.

11. artikulua. Jasanarazpena

1. Zergadunen ordezkoez sortzen diren kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete zergaren zergadunei, eta azken horiek behartuta egongo dira kuota horiek jasatera. Jasanarazpena ezin izango da exijitu administrazioak egindako likidazioen kasuan eta zergadunak berak dagokion autolikidazioa aurkeztu behar duenean.

2. Jasanarazitako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik bereizita.

12. artikulua. Zergaren kudeaketa

1. Zergadunaren ordezko diren subjektu pasiboek, edo, hala badagokio, zergadunek, hiru hileko natural bakoitzean sortutako kuotak jasoko dituen autolikidazio bat aurkeztu behar dute hiru hilean behin, eta harekin batera, zerga zorra ordaindu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak foru agindu bidez ezarritako moduan, lekuan, epeetan, baldintzetan eta betekizunetan.

2. Aurreko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera autolikidazioak aurkeztera behartuta dauden zergapekoak, jarduera hasi aurretik, hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren lurralde erregistroan inskribatu beharko dira erregelamenduz ezarriko den moduan.

Zerga honi lotutako zergapekoen errolda eta horiek lurralde erregistroan inskribatzeko prozedura Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularraren foru agindu bidez arautuko dira.

3. Zabortegeiak edo errausketa edo baterako errausketa instalazioak kudeatzen dituzten subjektu pasiboek erregistro datatu bat eraman beharko dute, erregelamenduz ezarriko den moduan, utzitako, erraustutako eta batera erraustutako hondakinei buruz. Betebehar hori betetzat joko da ekonomia zirkularerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan aipatzen den artxibo kronologikoa eramaten bada.

4. Zerga premiazko araugintzako dekretu honetako 10. artikuluko d) eta e) letretan ezarritako zerga tasak aplikatzeko, hondakinen errausketa instalazioen kudeatzaileek beren esku eduki behar dute autonomia erkidegoak egindako jakinarazpena, non adierazi behar baita energia efizientiaren balioa zein den eta eragiketa D10 edo R01 gisa sailkatuta dagoen, hori guztia, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Industriako isurketen Erregelamenduak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak, 40. artikulua 2. apartatua ezarritakoari jarraituz

5. Zergadunen ordezkoen obligazioa da utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinen pisua pisaketa sistema homologatuak erabiliz egiaztatzea, uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 14. artikulua 1. apartatua b) letraren 5. betekizunean eta Industriako isurketen Erregelamenduak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duenak, 30. artikulua 2. apartatua ezarritakoarekin bat.

Ondorio horietarako, zergadunen ordezkoek behar bezala ziurtatutako pisaketa mekanismoak instalatu eta mantendu behar dituzte.

13. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

1. Artikulu honetan jasotzen den xedapen berezia alde batera utzi gabe, zerga honekin lotuta egiten diren arau hausteak kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua eta hura garatzen duten gainerako arauak aplikatuko dira.

2. Zerga arloko arau haustea izango da hondakinak zabortegeietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren lurralde erregistroan ez inskribatzea.

Zerga arloko arau hauste horren zehapena 1.000 euroko diruzko isun finkoa izango da.

Kasu horretan, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauko 192. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen a. Hondakin industrial jakin batzuei aplikatu beharreko araubidea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako hurrengo hiru urteetan, zerga honetatik salbuetsita egongo da hasierako ekoizleak bere instalazioetan dauden zabortegeietan hondakin industrial ez-arriskutsuak entregatzea, instalazio horiek bere titulartasunekoak eta bere erabilera eksklusiboak badira.

Bigarrena. Hondakin jakin batzuei 2023an eta 2024an aplikatu beharreko zerga tasak.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen 10. artikuluko a) letraren 4. zenbakian aurreikusitakoa gorabehera, tona metriko bakoitzeko bertan aurreikusitako 20 euroko zerga tasa 10 eurokoa izango da 2023rako eta 15 eurokoa 2024rako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen a. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Ekonomia Itunaren hamaikagarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Bigarrena. Beste xedapen batzuen indarraldia.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indarrean jarraituko du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren maiatzaren 5eko 294/2023 Foru Aginduak. Horren bidez, "Hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko Zerga. Autolikidazioa" izeneko 593 eredua onetsi zen. onetsi zen, eta hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren zergapekoak lurralde erregistroan inskribatzea arautu zen.

Hirugarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Laugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA